

AMONAREN OROITZAPENAK

-Amona, nor zara zu?

-Ni? Beheko lerroko bigarrena eskuinetik hasita, eskua nire ahizpa Luisaren belaun gainean duena. Eta hor goikoa, nire amaren alboan dagoena, osaba Peio da.

-Eta goiko lerroan erdian dagoenak eskuan duena pilota bat da?

-Horixe, ba! Zer uste duzu nire haurtzaroan ez genuela pilotarik ala? Tira, eseri hor eta argazki hau atera genuen eguneko istorio labur bat kontatuko dizut.

Amona argazki bilduma besoan hartuta sutondoaren ondoan dagoen besaulkian eseri da. Nik besaulkiaren pareko aulkian dagoen katua hartu, hark utzitako ileak kendu eta bertan eseri naiz, katua magalean ipiniz.

-Entzun arretaz. Oroitzen naiz nire anaia Jose Angelen urtebetetze eguna ospatzeko elkartu ginela gure baserrian. 8 urte bete zituen martxoaren 25 euritsu hartan. Munduko mutilik alaiena zirudien aitak kaxatxo batean pilota hura oparitu zionean. Bazkalostean, osaba Martinek eskusoinua hartu eta denon artean kanta saio ederra egin genuen. Abesten aritu ginelako edo beste arrazoi batengatik, euria egiteari utzi zion eta etxe atzera joan ginen familiako gazteak pilota berriarekin jolastera. Egia esan, mutilak bakarrik aritu ziren txapelketa moduko hartan. Nire ahizpak eta lehengusinak zuhaitz handiaren azpian jesarri ginen, gure kontuez hizketan aritzeko. Iluntzen hasi zuenean, izeba Mariak etxera sartzeko eskatu zigun. Hantxe zeuden izeba-osaba guztiak guri zerbait esateko prest. Orduan, osaba Peiok pausu bat aurrera eman eta begiak bustiak zituela Hego Ameriketara joatea erabaki zuela adierazi zigun. Hura izan zen ordura arte jaso nuen notiziarik gogorrena. Inork ez zuen ezer esaten, etxea isilik geratu zen. Halako batean, nire ahizpa Luisa osabarengana hurbildu eta besarkatu egin zuen, haren atzetik beste guztiok berdina egin genuen. Oroigarritzat argazki hau atera genuen nire aitak erosi berri zuen argazki kamerarekin, eta hura izan zen osaba Peio ikusi genuen azkeneko eguna.

Amonari azken hau kontatzean eztarrian egin zaion korapiloa askatzen laguntzeko asmoz, bildumako orriak pasa eta beste argazki bat bilatzen hasi naiz. Bigarren orriko azkeneko argazkiari begira geratu naiz une batez. Ondoren, amona eserita dagoen besaulkiaren atzeko hormara begirada zuzendu eta argazki bera dela konturatu naiz.

-Eta beste argazki hau? Hor atzean dagoenaren berdina da, ezta?

-Bai, berdina da. Begira, argazki hau 10 urte nituenekoa da. Ezagutzen al duzu horko norbait?

-Ezagutuko ez dut, ba! Bigarrena, besoak gerrian dituena, zu zara!

-Eta besteak? Ez, ezta? Bada, entzun. Horiek nire herriko lagunak dira eta igandero mezetara joan ondoren pilotalekuan elkartzen ginen pare bat orduz bazkaltzera joan aurretik. Harrapaketan ibiltzen ginen euririk ari ez zuenean eta egun euritsuetan, berriz, kanikekin jolasten ginen.

-Kanikekin? Nik uste nuen kanikekin ez zegoela jolasterik!

-Ustea ez da jakitea, neska. Inoiz ez al zara lagunekin kaniken jokoan ibili? Gaur egungo haur hauek... Tira, joan sukaldera eta ate ondoan dagoen armairuko bigarren kaxoian poltsa bat dago, hartu eta ekarri hona.

Katua magaletik kendu, lurrean utzi eta poltsaren bila abiatu naiz. Tiradera ireki eta zapi batzuen azpian dagoen zakutxo modukoa hartu eta egongelara itzuli naiz. Katua berriro ere aulkian etzanda dago. Oraingoan, ordea, lurrera jaitsi, nahiak atera eta umore txarrez etxeke sarrerarantz abiatu da.

Amonak eskuekin poltsa irekitzeko keinua egin dit. Barruan zeuden kanikak hartu eta pilota txiki hauekin nola jolas daitekeen pentsatzen hasi naiz. Amonak, pentsatzen ari naizena jakingo balu bezala, joko arraro hori azaldu eta gaur egungo gazteok hausnartu beharko genukeen esaldi bat bota du:

-Nire gazte garaian, haurrok oso gutxi behar genuen pozik egoteko. Pilota bat edo 5 kanika hartu eta egun osoa jolasean eman genezakeen gurasoei txintik esan gabe. Gaur egun ordea, haurrek Olentzero datorrela eta, opari mordoa eskatzen dituzue, eta hori gutxi balitz, zuek eskatutakoa oparitzen ez badizuete egundoko kasketa harrapatzen duzue.

Badakit amonak honetan ere arrazoia duela, baina gai honi buruz gehiago ez hitz egitearren bildumako argazkiak behatzen jarraitu dut. Orria pasatzean, amaren osaba eta nire amonaren argazki bat deigarri egin zait, Jose Angel besoa lotua duela azaltzen da eta.

-Amona, zer gertatu zitzaion zure anaiari besoa lotua izateko?

-Ai... badakizu nolakoak diren mutilak, zer ikusi hura ikasi. Gogoan dut, udako egun haizetsu horietako bat zela. Jose Angelek eta etxeke beste mutilek txapelketa moduko bat antolatu zuten baserri atzeko zuhaitz handira azkarren nor igotzen zen jakiteko. Anaiarik gazteena, Josetxo, denbora hartzeaz arduratzen zen, segundoak ahots altuz kontatzen zituen eta besteak binaka etxeke hormatik irten eta zuhaitzaren erdira igo behar ziren aurkaria baino lehen. Jose Angel eta bera baino urtebete zaharragoa zen Braulioaren txanda iritsi zen eta biak zeuden prest arerioa garaitzeko. Guk bagenekien Braulio aterako zela garaile, kirolean bestea baino trebeagoa baitzen. Josetxok irteera eman eta biak arineketan hasi ziren. Harrigarria bazirudien ere, Jose Angel izan zen lehena zuhaitz handira iristen. Orduan hasi zen benetako norgehiagoketa. Berehala jarri zen Braulio Jose Angelen altuera berean. Egunduko haize bortitzak ez zuen gehiegi laguntzen zuhaitzean gora eta oraindik interesgarriagoa bihurtzen zuen lehiaketa. Braulio, bat-batean, egunduko jauzia egin zuen adar batetik bestera eta aurrea hartu zion besteari. Jose Angelek, ez zuen etsi eta bere indar guztiak batu eta haren anaiak egin zuen berdina egiten saiatu zen. Ez dakit haizeagatik edo oina toki egokian ez ipintzeagatik, baina lurrera erori zen. Txoriak ere isilik geratu ziren eta haren negarra zen entzuten zen bakarra. Ezertarako astirik gabe aita iritsi zen eta ezer esan gabe Jose Angel hartu eta herriko medikuarengana eraman zuen.

-Ez al zizueten errieta egin?

-Etxera iritsi zirenean bai. Jose Angelen besoak ez zuen ezer larririk, baina hirubat egunez gelditu edukitzeko esan omen zion sendagileak. Aitak etxeke guztiak sukaldean bildu gintuen afaldu aurretik eta oraindik ere buruan ditut hark esandako hitzak: "Ez al dakizue zuek joko deitzen diozuen hori ez dela benetako jokoa eta oso arriskutsua dela? Zortea izan dugu Jose Angelek kolpe bat baino ez izatean. Ez duzue zuen ekintzek izan ditzaketen ondorioetan pentsatzen. Eta zuk Braulio, jada 15 urte dituzu eta heldutasun maila bat erakutsi beharko zenuke. Zure anaiak horrelako arriskupean jarri ordez, babestu egin beharko zenituzke, axolagabe hori!". Lur jota geratu zen anaia zaharrena aitak esan ziona eta gero. Gertatutakoaren ondoren, etxean ez zen giro izan egun batzuetan. Hala eta

guztiz ere, egunak joan eta egunak etorri, gure arteko harremanak normaltasunera itzuli ziren.

-Nire etxean ez da horrelakorik gertatuko, alaba bakarra naiz eta!

Barrez hasi gara amona eta biok eta ia-ia bilduma lurrera erori zait. Berrero ere orriak pasatzen hasi naiz argazki deigarri baten bila. Azken orrialdera iristean argazki bat erori da lurrera. Amona besaulkitik altxatzen hasi dela ikustean, bera baino azkarrago zutik jarri eta lurreko argazkia jaso dut, adina dela eta ez baitago oso osasuntsu. Argazkia zuzen jarri eta hemen ere amona eta bere anai-arrebak agertzen direla ohartu naiz, eta haien eskuinean amonaren ama.

-Amona, zergatik zaudete argazki honetan denok beltzez jantzita?

-Argazki hau apirilaren 5ekoa da, nire aitaren hileta elizkizunaren egunean atera genuen.

-Baina ez al zara oso gaztea aitarik gabe geratzeko?

-20 urte nituen aita hil zitzaidanean. Oso gogorra izan zen denontzat. Etxeko nagusiaren papera Brauliok hartu behar izan zuen. Ama denboraldi batean lur jota egon zen. Egun batzuk igaro zituen ohean etzanda jateko ere indarririk ez zuela. Orduan, emakumeok, amak egiten zituen etxeko lanen ardura hartu genuen eta pixkanaka-pixkanaka egoera hori hobetuz joan zen. Amak ulertu zuen haren beharra genuela, batez ere 14 urterekin aita galdu zuen Josetxok. Nire bizitza erabat aldatu zuen aitaren heriotzak. Gazte izatetik heldu izatera pasatu nintzen berehala. Hasieran, bakarrik egon nahi nuenean, zuhaitz handiaren azpian esertzen nintzen eta orduak eta orduak igarotzen nituen malko artean. Jarraian, konturatu nintzen egoera horrek ez ninduela batere laguntzen, aurrera jarraitu behar nuela eta horretarako familiaren laguntza ezinbestekoa zela. Gure aitaren heriotza gainditzeko, berarekin bizitako une onak ekartzen nituen gogora, eta nahiz eta horrelako uneak gehiago biziko ez nituela jakin, denborarekin aita gogora ekartzeak alaitu egiten nituen, gauza asko ikasi baintuen berarengandik.

Pare bat minutuz amona isilik geratu da, pentsakor. Lehenengo aldia izan da amona horren goibel ikusten dudana. Isilunea apurtzeko asmoz zerbait esatea gustatuko litzaidake, baina ez ditut hitz egokiak aurkitzen.

Azkenean, amaiatu da isiltasun gogaikarri hau, ate hotsa entzun dugu eta amona eta biok burua biratu dugu etxera nor etorri den ikusteko. Urrats batzuk entzun ditugu gero eta gertuago. Halako batean, egongelako atean nire ama azaldu da, besoetan katua zekarrela. Amak jada etxera joateko garaia dela esan du. Orduan, argazki bilduma itxi, besaulkiaren alboko armairuan utzi eta amonari bi musu eman dizkiot. Hor geratu da amona, bakarrik, bere betiko besaulkian eserita sutondoaren berotasunean. Gaurko egunaren ondoren amona gehiago ezagutzen dudana sentzazioa dut eta desiratzen nago hurrengo igandean berriro elkartu eta bere bizitzako une gehiago kontatzeko.